

Donostia, 2016ko uztailaren 15a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA ULIATIK IBILGAILU PRIBATUAK IBILTZEA DELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) egindako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Batzordean planteatu genuen bezala, Uliako Mendiola baserritik Zarra gotorlekuraino doan pista duela gutxi egokitu dute eta baso pista bat izatetik hormigoizko pista bat izatera igaro da dituen 500 metro luze horietan. Suterik izanez gero suhiltzaileen kamioak sartzeko egin omen dute obra.

Ulia mendia Garrantzi Komunitarioko Eremua da eta Natura 2000 sarean sartuta dago 2004 urteaz geroztik. Hortaz, horrelako eremu batean ezer egin aurretik, zehaztu egin behar da ingurumen-inpaktua neurtzeko ebaluazioa egin behar den ala ez.

Batzordean bertan, zinegotzi ordezkariak esan zuen ez zela egin ingurumen-inpaktu partzialeko azterlanik ere (era horretako azterlanek ingurumenari oso partzialki eragiten dioten proiektuak, obrak edo jarduerak barne hartzen dituzte zeinen eragin kaltegarriak neurri jakin eta aplikatzen errazak hartuta ezaba baitaitezke. Gogoratu Natura 2000 sarean sartuta dagoen GKE batez ari garela.

Ukaezina da hormigoizko pista hori egin izanak eragin kaltegarriak izan ditzakeela Ulia mendian ez bada neurririk hartzen baimenik ez duten ibilgailuak handik ez ibiltzeko; izan ere, pista berriak aukera ematen du edozein ibilgailu mota handik ibiltzeko.

Hori horrela bada ere, zinegotzi ordezkariak erantzun zigun zaila zela baimenik gabeko ibilgailurik ez sartzeko neurriak jartzea eta arazo teknikoak eta bandalismoa aipatu zituen. Dena den, ingurune naturaletan toki askotan jarri izan dira eta, beraz, ez zaigu inondik inora onargarria iruditzen jaso dugun erantzuna.

Era berean, eta eremu horren antolamenduari dagokionez, zinegotzi ordezkariak jakinarazi zigun Ulia Mendiko Plan Berezia prestatzen ari direla, baina, antza denez, prestatzen amaitzeak ez du lehentasunik, plana zertan den gaiaz ez zuen eta ezertxo ere esan.

Hori dela eta, hauxe da aurkezten dugun

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio lehenbailehen jar ditzala behar diren neurriak baimenik gabeko ibilgailuak Ulia menditik ibiltzea galarazteko.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio aurkez dezala Ulia Mendiko Plan Bereziari behin betiko onarpena emateko egutegia.

Izpta.: Loïc Alejandro,  
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.